

Udal honetako Herritarrentzako batzordeak, **2021eko otsailaren 25ean** egindako ohiko bilkuran, besteak beste, honako irizpen hau eman zuen:

6.- HHI-EPA ikastetxearen 2020-2021 ikasturteko diru laguntza eskaera

Heernaniko HHI-EPA ikastetxetik 2020-2021 ikasturterako diru laguntza eskaera egin dute.

Udal aurrekontuetan jasota dagoen diru-kopurua EPA-HHI eskola funtzionamendu gastuetarako 3.600,- €ko diru laguntza onartzea.

Proposamena aho batez

Hezkuntzako delegatuaren dekretu bidez ondoko gastua bideratzea, **3.600 €**.

Azalpena: 2020-21 ikasturteko eskola jardueren dirulaguntzak

Kontusaila: 1.02.422.01.326.03. (2021) Diru laguntzak HHI-EPA.

Ordainketa modua:

- Ikasturte hasieran: %80a

- Ikasturte amaieran, memoria aurkeztu ondoren: %20a

Irizpen hau neure egiten dudalarik, jakinaren gainean egoteko eta ondorioak izateko adierazten dizut.

Hernani, 2021eko otsailaren 25ean

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra
Batzordeburua